

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Hatz-bizarrak belzten

INTXAURRONDOAK bere pean bizi nahi duten landareak akabatzeko pozoia darabil. Bere pe horretan intxaurreak jasotzen ditugunean, hazia inguratzen duen mamiaren urak, hatz eta azkazal belzten dizkigu. Belztaile hori da pozoia, kontuz bada Intxaurrekin bezala intxaurrekin.

Oilanda busti, koittadu alenok! Geure kultura eze-rezera eta izaera bereratzten ari diren kanpotarren ikur ere bada intxaurrea, *Juglans regia*, hitzez hitz estatuaren babeslearen hotsandiko ezkurra. Milaka urtetan, amonaz amona, ehunka euskaldun belaunaldi mantendu dituen hurra (*Corylus avellana*) ostikoz jo eta haren orde, intxaurrea sartu dugu ospe eta ohore guztiz gure sukaldeetan. Eta jaki klasikoetan betikoena bailtzen biziki miretsi; sagardotegietara begiratu... Sagardoaren, geu geutzen gaituen elikagai bakarrenetakoaren lagun min bihurtu dugu intxaurrea. Eta, okerrera, betikoa dela esan, gainera; sagardotegietan bakailoa eta txuleta besterik ez dela jan esaten den bezala, edo zutik jan dela bezala, edo sagardoa kristal meheko baso handian edan dela bezala, edo... Oilanda bustia baino okerrera goa da bai oilasko harro ezjakina.

Zerutik zetorren hurra zelako, eltzetik eltzaur, gailendu ote zitzaion hurritzaren hurrari? Jakiena bakarrik ez, mitoen tokia ere irabazi zuen eltzaurrondoak, lizarrara, artea eta haginari etxe atariko toki nagusia kentzeraino. Deabruaren arbola dela ere badiote, nekazaritza biodinamikoaren bueltan dabiltzanek ez dute ikusi ere egin nahi. Intxaurreko multzo ikusgarri batez inguratutako baserri bat erosi eta denak ipurditik bota dituenik ere bada. Beste muturrean, etxe barrurako altzaritarako intxaurre-zura ikusgarri ordaintzen da, eta beltza bada itxuragabe.

Hilabete pare bat barru etxeko intxaurreak biltzerakoan hatz-bizarrak belzten zaizkizunean mutur haue-taz gogoratu, eta eskuak azkar garbitu... Herodes! Ala Pilatos zinen?



FOTORUFFIAN

## 72 ordu

Iruñeko Laetoli argitaletxeak gaztelerara ekarri zuen Franz J. Broszinger soziologoaren *Ecocidio. Breve historia de la extinción en masa de las especies* liburuan giza-kiak duen bioaniztasunaren premia azaltzen du. Adibidez, kukuprakatik (*Digitalis purpurea*) sortzen dugun digitalina toxina-botika ez bagenu, bihotzetik pattal dabiltzan hiru milioi inguru estatubatuar 72 ordurako hilko lirakeela dio.



Kukupraka (*Digitalis purpurea*).

**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba  
Ugartte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •  
Usurbilgo baserrietako produktuak •  
Sagardogintzarako tresneria •  
Tratamendu naturalak •  
Onttoen haziak... •  
Banaketa zerbitzua •

**DENDAREN ORDUTEGIA**

Astehenetik-Ostiralera: 9tatik-13tara eta 16tatik-19.30tara  
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14

www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com